LEGAZPIKO UDALA

**LEGAZPIKO UDALEKO OBRETAKO ETA MANTENTZE-LANETAKO OFIZIAL PLAZA BAT JABETZAN BETETZEKO HAUTAKETA-PROZESUA.**

**Oposizioaldiko bigarren ariketa egiteko tokia, eguna eta ordua.**

**EGUNA: 2026ko OTSAILAREN 25ean.**

**ORDUA: 09:00.**

**LEKUA: Udal Kiroldegian** (Bikuña 36, Legazpi).

-Bigarren ariketa, nahitaezkoa eta baztertzailea izango da aurreko ariketa gainditu duten izangai guztientzat.

Lanpostuan egin beharreko zereginekin eta oinarrien I. eranskinean jasotako gai–zerrenda espezifikoaren edukinean oinarritutako honako probak egin beharko dira:

1.Izaera teoriko-praktikoa duen proba: Erantzun anitzeko galdera-sorta bat erantzun beharko da. Erantzun horietako bat bakarrik izango da zuzena. Proba hau, gehienez 6 punturekin baloratuko da.

2. Izaera teoriko-praktikoa duen proba: Erantzun anitzeko galdera-sorta bat erantzun beharko da. Erantzun horietako bat bakarrik izango da zuzena. Garatzeko galdera bat ere egongo da proba honetan. Galdera honetan hautagaiek beraiek eramandako kalkulagailua erabili ahal izango dute (ezingo dute telefono mugikorraren kalkulagailua erabili). Proba hau, gehienez 10.25 punturekin baloratuko da.

**PROCESO SELECTIVO PARA LA PROVISIÓN EN PROPIEDAD DE UNA PLAZA DE OFICIAL U OFICIALA DE OBRAS Y MANTENIMIENTO DEL AYUNTAMIENTO DE LEGAZPI.**

**Lugar, fecha y hora de celebración del segundo ejercicio de la fase de oposición.**

**DIA: 25 FEBRERO DE 2026.**

**HORA: 09:00h.**

**LUGAR: Polideportivo Municipal** (Bikuña 36, Legazpi).

-El segundo ejercicio, de carácter obligatorio y eliminatorio para todas las personas aspirantes que superaron el ejercicio anterior, consistirá en realizar las siguientes pruebas relacionadas con las tareas propias del puesto y el temario específico de la convocatoria (Anexo I de las bases):

1.Una prueba de carácter teórico-práctico con preguntas tipo test con respuestas múltiples, siendo solo una de ellas correcta. Esta prueba se valorará con un máximo de 6 puntos.

2.Una prueba de carácter teórico-práctico con preguntas tipo test con respuestas múltiples siendo solo una de ellas correcta y una pregunta de desarrollar para la que las personas aspirantes podrá hacer uso de la calculadora (la calculadora la deberán llevar las personas aspirantes y en ningún caso podrán usar la del teléfono móvil). Esta prueba se valorará con un máximo de 10.25 puntos.

Legazpiko Udala • Euskal Herria plaza, 1 - 20230 LEGAZPI • 943 73 70 30 • haz@legazpi.eus • www.legazpi.eus

CSV: 07EA0009A83300W9G6O5B6N0S4S3S2G0Z7I4N7V7

LEGAZPIKO UDALA

| Dokumentu hau egiazkoa dela 07EA0009A83300W9G6O5B6N0S4S3S2G0Z7I4N7V7 kodearekin egiazta daiteke ondorengo Entitatearen Egoitza Elektronikoan | SINATZAILEA - DATA | EXPEDIENTE :: 2025IZEN00011 |
|---|---|---|
| | PEDRO GARMENDIA JAUREGUI(-Ayuntamiento de Legazpi - Legazpiko Udala)-Kiroletako teknikaria - 16/02/2026 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 16/02/2026 14:07:04 | Esp.Data: 11/06/2025 Ordua: 00:00 Und. reg: REGISTRO GENERAL |

Legazpiko Udala • Euskal Herria plaza, 1 - 20230 LEGAZPI • 943 73 70 30 • haz@legazpi.eus • www.legazpi.eus

3. Izaera teoriko-praktikoa duen proba. Proba hau, gehienez 5 punturekin baloratuko da.

4.Proba praktikoa. Proba hori banaka egingo da, azterketaren egunean jakinaraziko den ausazko ordenean. Proba hau, gehienez 3.75 punturekin baloratuko da.

-Izangaiek 2:45 ordu izango dituzte proba guztiak egiteko. Proba praktikoa egin behar duten hurrenkeraren arabera, izangaiek ezin izango dituzte instalazioak utzi harik eta probak irauten duen denbora osoa agortu arte, proba guztiak amaitu ezean.

- Proba hori, gehienez ere, 25 punturekin kalifikatuko da, eta gainditzeko gutxienez 12.5 puntu lortu beharko dira.

- Azterketa banatzeko unean ariketa bakoitzaren atal bakoitzaren balorazioa nola egingo den jakinaraziko zaie izangaiei. Nolanahi ere, kontuan hartuko da erantzunen zehaztasuna. Erantzun gabeko galderak eta oker erantzuten direnak ez dira zigortuko.

-Ariketa hau egiteko izangaiek ezingo dute inongo agiririk erabili.

- Izangaien **anonimotasunari dagokionez**, honela bermatuko da:

-Izangai bakoitzari honakoak emango zaizkio: txartel bat zenbaki batekin (bi kopia emango zaizkio, horietako batekin gera dadin), gutun-azal handi bat eta gutun-azal txiki bat. Zenbakia duen txartel hori bere datu pertsonalekin beteko du izangaiak, gutun-azal txikian sartuko du eta itxi egingo du. Gutun-azal hori idazkariaren zaintzapean geratuko da azterketa

3. Una prueba de carácter teórico-práctico. Esta prueba se valorará con un máximo de 5 puntos.

4.Una prueba de carácter práctico. Esta prueba será realizada de forma individual y en el orden aleatorio que se dará a conocer el día del examen. Esta prueba se valorará con un máximo de 3.75 puntos.

-Las personas aspirantes dispondrán de un total de 2:45 horas para realizar todas las pruebas. Dependiendo del orden en el que deban realizar la prueba práctica, las personas aspirantes no podrán abandonar las intalaciones hasta que se agote el tiempo total de duración de la prueba, salvo que hayan finalizado todas las pruebas.

- Este ejercicio se calificará sobre un máximo de 25 puntos, siendo necesario obtener un mínimo de 12.5 puntos para superarlo.

-En el examen, se establecerá la valoración de cada uno de los ejercicios y de sus apartados. En todo caso, se tendrá en cuenta en la valoración, la exactitud de las respuestas. Las preguntas no contestadas o erróneamente contestadas no penalizarán.

-Para la realización de esta prueba, las personas aspirantes no podrán hacer uso de documentación alguna.

- **El anonimato** de las personas aspirantes se garantizara de la siguiente manera:

A las personas opositoras se le repartirán: dos copias de una tarjeta con un número asignado, un sobre pequeño y un sobre grande. Deberán rellenar los datos personales requeridos en la tarjeta, quedarse con una de las copias e introducir la otra en el sobre pequeño y cerrarlo.

CSV: 07EA0009A83300W9G6O5B6N0S4S3S2G0Z7I4N7V7

LEGAZPIKO UDALA

| Dokumentu hau egiazkoa dela 07EA0009A83300W9G6O5B6N0S4S3S2G0Z7I4N7V7 kodearekin egiazta daiteke ondorengo Entitatearen Egoitza Elektronikoan | SINATZAILEA - DATA<br>PEDRO GARMENDIA JAUREGUI(-Ayuntamiento de Legazpi - Legazpiko Udala)-Kiroletako teknikaria - 16/02/2026<br>CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 16/02/2026 14:07:04 | EXPEDIENTE :: 2025IZEN00011<br>Esp.Data: 11/06/2025<br>Ordua: 00:00<br>Und. reg: REGISTRO GENERAL |
|---|---|---|

bakoitza zuzendu arte. Izangaiek esleitutako zenbakiarekin identifikatuko dute azterketa (erantzun-orri **GUZTIETAN,** jarri beharko da esleitutako zenbaki hori) eta bukatu ondoren gutun-azal handian sartuko dute. Gutun-azal handi hori epaimahaikideei emango diete.

-Identifikazio dokumentua (NAN-a, pasaportea edo gidabaimena) mahai gainean utzi behar da, ikusteko moduan.

-Boligrafo beltza edo urdina erabili behar da.

Ese sobre quedará bajo la custodia de la secretaria del Tribunal hasta la corrección de los ejercicios.

Las personas aspirantes, identificarán su ejercicio (**TODAS las hojas de respuesta**) con el número asignado en la tarjeta. Una vez finalizado el examen, introducirán las hojas de respuesta en el sobre grande, lo cerrarán y se lo entregarán a alguna de las personas que integran el tribunal.

- Deberá dejarse en la mesa, en lugar visible el documento identificativo (DNI, pasaporte, o permiso de conducción).

- Se necesita bolígrafo negro o azul.

Legazpiko Udala • Euskal Herria plaza, 1 - 20230 LEGAZPI • 943 73 70 30 • haz@legazpi.eus • www.legazpi.eus

CSV: 07EA0009A83300W9G6O5B6N0S4S3S2G0Z7I4N7V7

LEGAZPIKO UDALA

| Dokumentu hau egiazkoa dela 07EA0009A83300W9G6O5B6N0S4S3S2G0Z7I4N7V7 kodearekin egiazta daiteke ondorengo Entitatearen Egoitza Elektronikoan | SINATZAILEA - DATA<br>PEDRO GARMENDIA JAUREGUI(-Ayuntamiento de Legazpi - Legazpiko Udala)-Kiroletako teknikaria - 16/02/2026<br>CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 16/02/2026 14:07:04 | EXPEDIENTE :: 2025IZEN00011<br>Esp.Data: 11/06/2025<br>Ordua: 00:00<br>Und. reg: REGISTRO GENERAL |
|---|---|---|